

Oiartzun

OIARTZUNGUNEA



Egileak:

Kampi-Pimka

LH5



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

Joxemari



Welcome to live
one unforgettable experience.

Ven para explorar una
esperienzia inolvidable.

Etorri arakatzea eperentzia
ahazu ezina aurkitzea.

Aurkezpena

Kaixo, lagunak. Joxemari
naiz! Jendeak esaten du
oso ausarta eta
indartsua naizela. Nire
herriko toki asko
ezagutzen ditut. Nahi al
duzue egun zoragarri bat
pasatu nire herriaren
altxorak ezagutzuz?
Etorri eta gozatu!

Presentación

Hola amigos, soy
Joxemari!

Conozco muchos lugares
de mi pueblo,
¿queréis pasar un día
maravilloso descubriendo
los tesoros de mi
pueblo? ¿Ven y
disfruta!

Oiartzun begirada batean

Kokapena

Oiartzun, Gipuzkoako ipar-ekialdean dago eta Irún, Lezo, Errenteria, Arano, Goizueta eta Lesakarekin dauka muga.

Erliebe-elementuak

Oiartzun, izen bereko haranan dago eta bertatik Oiartzun ibaia jaisten da. Oiartzunen hainbat mendi daude baina aipagarrienak Aiako Harria, Urkabe eta Bianditz dira.

Bestelako informazioa

Oiartzungo pertsona ospetsuenak eta aipagarrienak Xabier Lete, Alaitz eta Maider, Alaia Martin eta Hilario Arbelaitz dira.

Oiartzunen Ihoteak ospatzen dira urtero. Aiako Harritik Intxixuak, Basandriak eta Sorginak jaisten dira. Ihotiak inauterien aurreko astean ospatzen dira.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Bianditz




Bianditz OartzungoÂ mendirik altuena da 797 metroko altuerarekin.

Bianditzen zaldiak, basurdeak, hegaztiak, kattagorriak,Â behiak... ikusteko aukera duzu. Bianditzen landaretza handia dago eta oso polita. Igotzen bazara bista oso ederrak ikusten dira ,adibidez Irun, Donostia, Hondarribi, Hendaia, Pasaia eta Pirineoak ikusi daitezke. Mendizalea bazara aukera paregabea daukazu Bianditzekin.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Urkabe



Urkabe, Oiartzunen dagoen mendi bat da. Urkabe Arragua, Gurutze eta Elizalde auzoen tartean dago. Bere altuera 234 metrokoa da. Urkabe oso berdetsua da. Bertan, animalia hauek daude: kattagorriak, zaldiak, basurdea eta hegaztiak. Urkabeko tontorrean gurutze handi bat dago.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

UGARTE ERROTA



Ugarte Errota, Altzibar auzoko errota da eta oso polita da bisitatzeko. 1784 urtean errota bezala agertzen da dokumentuetan.

Ugarte Errotaren ondoan, zubi bat dago, bertatik ibaia igarotzen da, eta beste aldean bidegorria dago. Bere ondoan errotarria ikusgai dago. Errotaren ondoan zelai handi bat dago, terraza bat dauka eta hiru beheko su dauzka.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


DONEZTEBE ELIZA



Doneztebe Oartzungo eliza da. 1629-1643 bitartean egindakoa da.

Eliza honek 3 gorputz ditu eta atiko handia dauka. Antolaketa honakoa da: hiru kale nagusi eta bi kalearte. Barruan ez ziren bakarrik mezak egiten, gordeleku bezala ere erabili zuten, adibidez Espainiako gerra zibilean, bi gerra mundialetan eta gerra gehiagotan ere erabili izan zuten.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Plazatik Doneztebe Elizara joateko.

Deskribapena

Lehengo hartu malda gora Donibane kaletik, eta ezkerrera aurkituko dituzun harrizko eskailera zaharrak igo. Bertan topatuko duzu Doneztebe Eliza.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



Doneztebe Elizatik Urkabe mendira.

Deskribapena

Lehengo igo Learre kaletik, eta gero lehengo bidegurutzean hartu ezkerretara. Gero jarraitu aurrera, hurrengo bidegurutzean hartu eskubira eta segidan hartu ezkerrera. Egin aurrera kale horretan hurrengo bidegurutzeraino. Bidegurutzean jarraitu aurrera, ondoren, eskubira. Aurrera jarraitu eta, azkenik, eskubira. Goian gurutze handi bat topatuko duzu

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



Urkabetik Bianditzera (menditik mendira).

Deskribapena

Urkabe bidetik jaitsi eta Frailen bidean biratu eskuinera. Ondoren, jarraitu Legarrea kaletik. Bidegaina kalea topatzen duzunean biratu eskuinera. Gero, segi Sontusene kaletik Albistur jatetxearaino. Jarrai ezazu Mikelete kalea eta segi zuzen Artikutrako bidetik Karrika auzoa aurkitu arte, eta segi bertatik. Bukatzen denean, Oialeku bidetik segi Gurutzeko errepidea aurkitu arte. Hortik aurrera, Bianditzeko gaina topatuko duzu.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



Bianditz menditik Ugarte errotera joateko.

Deskribapena

Bianditzetik oinez jaisten hasi eta, lehenengo bidegurutzetan, hartu eskubira. Bigarren bidegurutzetan, jarraitu aurrera. Ondoren, hartu eskubira. Hurrengo bi bidegurutzetan, jarraitu aurrera. Hurrengo bi bidegurutzetan, ezkerrera eta eskubira, baita hurrengo bitan ere. Hartu Oianleku bidea. Hurrengo bidegurutzetan Karrika auzoko gunerarte segi. Aurrera Artikutza bidea arte. Bukatzeko, aurrera segi eta Ugarte errota topatuko duzu.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Ugarte erroetatik Doneztebe plazara (helmuga eta abiapuntua berbera da).

Deskribapena

Errotatik jarraitu aurrera. Bidegorria aurkituko duzu, egin ezker eta aurrera, oinezko pasabidean aurreraka egin komun batzuk aurkitu arte. Bidegurutzetan hartu eskubira, goraka. Kiroldegira iristean egin aurrera eskaileretatik gurutzatu, Ibargain parkea igo. Beste eskailera batzuk igo beharko dituzu Kontzejupe plaza arte. Egin aurrera Sorgin taberna ondotik eta Doneztebe plazara iritsiko zara.

Bisitarientzako gomendioak

Zaborra zaborrontzitarra bota ezazu.

Ekar ezazu aterkia.

Trae comida para comer.

Trae una cámara.

Don't feed animals with your food.

Dress comfortably for your tour.